

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5034

*492/2025 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Joseba Imanol Presa Valle jauna ospitale-barneko kanpo-kontsultetako gainbegiralearen kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan.*

393/2023 Ebazpenaren bidez, Joseba Imanol Presa Valle jauna ospitale-barneko kanpo-kontsultetako gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Joseba Imanol Presa Valle jauna ospitale-barneko kanpo-kontsultetako gainbegiralearen kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko ESlan, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko urriaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barakaldo-Sestaoko ESlari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2025eko urriaren 30a.

Barakaldo-Sestaoko ESlko zuzendari-gerentea,  
ENEKO GUTIÉRREZ COTERÓN.